

# 'Osasuna Zainduz' plangintza onartu du Gasteizek «kalitatea lortzeko»

Arregi: «Sistamarako beharrezkoak diren egitura aldaketak dakartza»

**Joseba Arregi**  
Jaurlaritzako bozeramaileak atzo iragarri zuenez, Euskal Osasun Arloko Sistemaren Estrategi Planari onespina eman zion atzo Gobernu Kontseiluak. 'Osasuna Zainduz' izeneko plana bide parlamentarioari ekiteko gerturik dago jadanik.

LUIS KARLOS GARCIA / GASTEIZ

Euskal Autonomi Elkarteke «osasun sistemaren aldaketarako egitasmoa» onartu zuen atzo Ajuria Enean bildu zen Gobernu Kontseiluak, Arregik jakinarazi zuenaren arabera.

Planaren arabera, kalitateko sistema publikoa lortu ahal izateko kudeaketaren aldetiko aldaketa zenbait egin beharrezkoak dira. «Egitasmoak, osasun sistema unibertsal, parekatu, elkartasunezko eta kalitateko bihurtzearen, egitura aldaketa batzuei ekiteko beharrezko agertarazi du», argudiatu zuen Arregik.

Iñaki Azkuna Osasun sailburuaren plangintzan ageri denez, sistemak «oreka» lortu beharko du, «osasun beharrezko, baliabide eta zerbitzuen eskaeren artean», hain zuzen ere.

Arregik sugeritu zuenez, eraldaketei ekitea ezinbestekoa da sistemak iraun ahal izateko. «Eboluzioa hasi beharra dago baldin eta sistemari eusterik egotea nahi baldin bada», esan zuen Gobernu Kontseiluak, «demografia presio, berrikuntza teknologiko, arazo ekonomiko eta erabiltzailearen exigentzien eraginek» daudela oinarriturik.



Iñaki Azkuna Osasun sailburua.

OLALDE

## KALITATEA: GESTIO ETA KOMPETENTZIA

'Osasuna Zainduz' planak 5 proposamen nagusi ekarriko ditu. Lehendabizikoa «kalitatea lortu» eta sistema «gaixoiari begira jarzea» da. Horretarako tresnak, zerbitzua pertsonalizatu eta informazioa, hautatzeko aukera eta zerbitzuak hobetzea dira.

Bestalde, osasun zerbitzuak kontratatze eta emateari dago-

kionez, «laguntza zentroen arteko kompetentzia bultzatu eta erosketaren deszentralizazioa indarrean sartzeko joerak» hobetsi ditu osasun plan berriak.

Halaber, kudeaketari buruzkoak dira beste bi proposamen. Azkunen dokumentuak «kliniko eta gestio kulturen arteko hurbiltzea» aipatu du, «baliabide, autonomia eta lorpen profesionalaren errekonozimendua

✓ Administrazioak «babesle» izaten segitzea, sistemako langileak «integrazte» eta herritarrek «protagonistak» sentitzea dira planaren xedeak.

erabiltzean lan erantzukizuna suspertuz».

Bestetik, «gestio eta kontrol sistemak ezartzea» nahi du planak. Alde horretatik, «politika berria» eskatzen du erregimen juridiko, ordainketa, antolakuntza eta abarrez.

Azkenik, zerbitzuen eskaintzak «arrazionala» izan behar duela nabarmendu du, beharrezkoak eta aukerei egokituak.

Planaren arabera, bestetik, sistema berriak hiru helburu nagusi izango lituzke, sistemako partehartzaile bakoitzaren arabera, Administrazio, langile eta herritarrek, alegia.

Ildo horretatik, arlo publikoari argi eta garbi utzi nahirik, Administrazioak «denontzako elkartasunezko sistema» ematea segitu beharra daukela esan du. Baina osasun arloko langileak sistemari «integraturik» sentitzea ere beharrezkotzat jo du. Halaber, herritarrek «benetako protagonistak» direla erantsi du.

## Abereak babesteko lege proiektua onartu du Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak

BILBO

Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailak aurkeztutako Abereak Babesteko Lege proiektua onartu zuen atzo Gobernu Kontseiluak. Lege honek abere eta laguntzarako animaliak babesteko araudiak finkatzea du helburu nagusizat, Nekazaritza eta Arrantza Saileko iturrien arabera.

«Lege proiektuaren bitartez abereen errespetu, defentsa eta babesaren alde euskal gizartearen dagoen sentsibilizazio proze-

suari jarraipena eman nahi zaio. Era berean, Lege proiektuak orain arte egon ez den testuinguru legala garatzea du helburu, abereen jabeek dituzten betebeharrak eta zigortu behar diren jokoak zehaztuz», azaldu zuten iturri berberak.

Lege proiektuan adierazten denez, ehiza, arrantza, basoko fauna, zezanak, ikerketarako animaliak edo bestelako helburu zientifikoekin erabiltzen diren animaliak araudi honetatik kanpo gelditzen dira.

Gobernu Kontseiluak onartu-

tako Lege proiektuaren arabera, debekatuta dago abereak eta laguntzarako animaliei tratu txarrak ematea, kalean uztea, beharrezko elikadura ez ematea, ebakidurak egitea, drogak edo medikamentuak ematea. Ildo beretik, 14 urte baino gutxiagoko haurrei abereak saltzea debekatzen du Lege proiektuak, baita abereen herriz herriko salmenta ere, merkatu edo azoketan ez bada.

Lege proiektuaren arabera, Nekazaritza eta Arrantza zein Osasun sailek txertaketa inposatzeko eskubidea edukiko dute.

## LABURREAN

### KIRURGIARI buruzko jardunaldiak Bilbon

Osakidetza Kirurgiaren Gaurkotzeari Buruzko V. Jardunaldiak eta Erizaintzari buruzko II.ak egingo ditu bihar eta etzi Bilboko Indautxu hotelean. Bi eguneko jardunaldi hauetan kirurgian ematen diren zoldurak, ingresurik gabeko kirurgia, erizainek ospitaletako infekzioen aurrezaintzan betetzen duten funtzioa eta beste gai batzuk aztertuko dituzte adituek.

### RADIO EUSKADI

#### bigarren postuan audientzian

Radio Euskadi irratia bigarren postua lortu du entzule kopuruari dagokionez jaio zeneko hamargarren urteurrenean, Euskal Irrati Telebistako iturriek Efe agentziari aditzera eman diotenez.

### LEITZA eta Aresoko biztanleek kexak azaldu dituzte

Lurralde koordinadora mintzatu zen atzo Iruñean, Irurtzun-Andoain autobideko lanen jarraipenean dauden arazoak salatuz. Atzo, Leitza eta Areson gertatzen ari dena salatu zuten. Leitzako Erreka auzoan hormigoi planta bat jarri dute «legez kanpo dagoen biaduktu bat egiteko, lan honen ingurugiro azterketa egin gabe baitago».

### ANGOLAKO bi lagunek jasotako tratu txarrak salatu dituzte

Antonio Luvelela eta Mpinga Mbungu Nfulu Angolako etorkinak komisaldegian jasan zituzten tratu txarrak salatu ditu SOS Arrazismo taldeak. Bi lagun hauek pasa den martxoak 13an atxilotu zituzten, ustez denda batean lapurtzeagatik.

KORRIKAn erabiltzen diren ibilgailuak honako hauei esker lortu dira:

**Opel Aldiak**  
**Talleres Ola Opel**  
**Ford Elorza**  
**Ford Mugarri**  
**Ford Amets**  
**Ford Arga-Motor**  
**Fivencar**  
**Opel Aucasa**  
**Ford Kondia**  
**Opel Maskuribai**  
**Seat Audi-W Artibai**  
**Ford Uralar**

Mila esker  
**KORRIKA 8**

APIRILAK

1 osteguna

ONDARROA 00:36	ZARAUZ 03:51	ZUMARRAGA 07:55	ARRASATE 10:43	AGURAIN 16:43	GASTEIZ 19:43
-------------------	-----------------	--------------------	-------------------	------------------	------------------

**korrika** DENOK Maite dugu gure herria EUSKARAZ!